

TXOSTENA

EAEko EGONALDI ARTISTIKOEN MAPA

2017ko AZAROA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

AURKIBIDEA

| | | |
|------|---|----|
| 1. | Sarrera | 3 |
| 2. | Metodologia | 5 |
| 3. | Erakunde anfitrioiaren azterketa | 6 |
| 4. | Egonaldi-programen azterketa | 10 |
| 4.1. | Egonaldi-motak | 10 |
| 4.2. | Egonaldien ezaugarriak | 17 |
| 4.3. | Laguntzaileak, sareak eta trukeak | 19 |
| 4.4. | Egonaldietan parte hartzeko baldintzak | 21 |
| 4.5. | Egonaldiak hautatzeko prozesua | 23 |
| 5. | Azken sintesia | 26 |
| | ERANSKINAK | 29 |
| 1. | Erakundearen eta egonaldi-programen zerrenda. EAE 2016-2017 | 29 |
| 2. | Egonaldien fitxa | 31 |

Kulturaren Euskal Behatokiak ikerketa bat egin du egonaldi artistikoen inguruan, hau da, artistei eta bestelako sortzaile profesionalei, haien praktika artistikoarekin lotutako eremuetan, bakarka edo kolektiboki lan egiteko denbora, espazioa eta baliabideak eskaintzen dizkieten programen inguruan. Egonaldiek murgilketa trinko baten bidez haien lanean sakontzeko aukera ematen diete.

Ikerketa ikuspegi bikoitz batetik abiatu da: programa hauen ezaugarriak aztertzea eta EAEko egoeraren erretratu bat egitea. Lehen urratsa «Egonaldien ereduaren analisia» izeneko txostena egitea izan da begirada global bat oinarri hartuta. Bertan, egonaldien ezaugarri deskriptiboak, diren eredu eta tipologiak eta sortzaileei zein erakunde sustatzaileei ekartzen dizkieten onurak aztertzen dira. Egonaldien fenomenoaren gakoak ezagutzeko da politika publikoentzako irizpideak ezarri ahal izateko lehen urratsa.

Bigarren pausoa gaur egun EAEn existitzen diren egonaldi-programak ezagutzera dago bideratua. Horrela, egungo eskaintzaren panoramika osoa eskaini ahal izateko, EAEko Egonaldi Artistikoen Mapa hau ahalik eta inklusibo eta irekiena izateko asmoarekin egin da. Erakunde anfitrioiaren eta kudeatzen dituzten programen ezaugarri nagusia aniztasuna da. «Egonaldi» kontzeptuaren berezko ezaugarria da hori, filosofia malgua eta aldakorra baitu.

Maparen planteamendua edozein diziplina artistikotara eta tipologia ezberdinetara irekia dago: agente sustatzailearen arabera (erakunde publikoak, pribatuak...); erakundearen ezaugarrien arabera (arte-zentroa, sorguneak, antzokiak, jaialdiak...); egonaldiaren helburuak (ikerketa sustatzea, ekoizpena, nazioartekotzea...); egonaldiaren edukia (espezializatua, diziplinartekoa...).

Horri esker, alde batetik, programa hauek ezagutzeko interesa duenak informazio guztia eskura izango du, eta, bestetik, programa hauek etorkizunean garatzeko nitxoak identifikatzea errazagoa izango da. EAEko Egonaldi Artistikoen Maparen helburuak honako hauek dira:

- Egonaldi artistikoak sustatzen dituzten EAEko erakundeak identifikatzea.
- Egonaldi-programen ezaugarri esanguratsuenak aztertzea.
- Ezaugarrien araberrako tipologiak definitzea.

Horretarako, lehenik eta behin, programa horiek antolatzen dituzten eragileen behaketa egin da, titulartasuna, kokapen geografikoa edo tipologia bezalako aldagaietatik abiatuta.

Bigarrenik, egonaldi-programetara zuzendu dugu begirada. Tipologien araberako panoramika orokorra eskaini da, sailkapen egokia egitea ahalbidetzen duten irizpide esanguratsuak oinarri hartuta: erakunde anfitrioiak, espezializazioa, helburuak, izaera eta iraupena. Jarraian, azterketa programen xehetasunetan murgiltzen da, ezaugarrietatik eta baldintzetatik abiatuta deskribatu ahal izateko: eskaintzen diren baliabideak, ordaintzen diren gastuak eta ordainsaririk ba ote den ala ez. Programen azterketaren kapituluak beste alderdi batzuekin itxi dira: eragile/programen arteko lankidetzak, hautaketarako baldintzak (bai hautaketa irizpideak, bai hautatuaren betebeharrak), eta, azkenik, hautaketa prozesua.

Amaitzeko, ikerketaren elementu nabarmenenak laburbildu dira.

Ikerketaren helburuak direla eta, EAEko Egonaldi Artistikoen Mapa hau egiteko hurbilketa kuantitatiboa egin da, informazioa jasotzeko tresna gisa fitxa bat erabiliz.

Lehen urratsa Interneten eskuragarri den informazio publikoa aztertzea izan da, EAEn egonaldi artistikoak sustatzen dituzten erakundeak identifikatzeko eta horietako bakoitzak kudeatzen dituen programak ezagutzeko.

Bigarrenik, informazioa jasotzeko fitxa bat egin da honako atal hauekin: egonaldi-programaren identifikazio datuak; programaren helburuak eta ezaugarriak; eskaintzen diren kondizioak; hautaketarako irizpideak, baldintzak eta partaideen betebeharrak. Txosten honen eranskinean dago atxikita egindako fitxa eredu.

Fitxa betetzea errazagoa izan zedin, fitxak eskura zen informazio publikoarekin beteta bidali ziren, erakunde anfitrioiak datuok berrikus eta onar zitzaten. Fitxak bete eta itzuli ondoren, emaitzen datu-basea osatu zen. Erabilitako irizpidea programa mota bakoitzeko fitxa bana betetzea izan zen. Programa beraren baitan eta baldintza beretan urtean deialdi bat baino gehiago izanez gero, fitxa bakarra osatu da. Zehaztu beharra dago, erakunde anfitrioiak betetako eta onartutako informazioa jasotzean, haien irizpidea errespetatu dela.

Azkenik, emaitzak ustiatu eta EAEko Egonaldi Artistikoen Mapa izeneko txostena osatu da.

Txosten honek 2017ko ekainaren eta irailaren artean egindako ikerketaren emaitzak aurkezten ditu. 123 egonaldi artistiko sustatzen dituzten 43 erakunde anfitrioiak (ikusitako zerrenda eranskinean) informazioa jasotzen du. Eragileen % 67ren (29 erakunderen) erantzuna jaso dugu eta eragileok ikertutako egoitzen % 69 sustatzen dituzte (85 fitxa). Gainerako kasuetan, eskura den informazio publikoarekin osatu dira fitxak.

Jasotako informazioa gehienbat 2016. eta 2017. urteetan egindako azken egonaldi deialdiei dagokie.

Azterketarako lehenengo begirada erakunde anfitrioiei buruzkoa da. Panoramika labur bat eskaintzen da, EAEko egoera ikertzeko lehenengo urratsa izango dena. Helburua egonaldi-programen sustatzaileak zein diren, non kokatzen diren eta zein ezaugarri dituzten jakitea da. Guztira, 43 eragile lokalizatu izan dira.

Tipologiak

Arte eszenikoei lotutako espazioak dira nagusi (16), gehienbat baliabide eszenikoak dituzten zentroak (6) edo aretoak (5), gehienak udalen jabegokoak. Egonaldiek baliabide hauek optimizatu eta etekinik handiena ateratzea ahalbidetzen dute. Gainera, bitartekaritza lan garrantzitsua egiten dute eta publiko berriak sortzen dituzte.

Aipatu beharrekoak dira, eraberean, sorgune ertain edo txikiak (15); izan ere, egonaldien formulak bat egiten du ekimen horien helburuekin, besteak beste, egitura sortzailea garatzearekin, esperimentazioa bultzatzearekin eta sorkuntzaren inguruan sareak jostearrekin.


Bestalde, esanguratsuak dira sorkuntza garaikidera zuzendutako ekimenak, kopuruagatik baino gehiago, tamainagatik eta nazioarteko onarpenagatik eta testuingurua sortzen egindako lanagatik. Lehenengo kasuan Azkuna Zentroa, BilbaoArte eta Tabakalera bezalako zentro handiak dira; bigarreanean, aldiz, Bulegoa z/b, Consonni eta Eremuak bezalako ekimenak.

Hiriburu eta udalek ere egonaldiak sustatzen dituzte, batez ere Gasteizko Udalak, bertako antzoki-sarean kokatutako programa ugari dituenak, eta Donostiakoak, arte eszenikoen egonaldiez gain, literaturan espezializatua den programa bakarra sustatzen baitu.

Gainerako erakundeak askotarikoak dira: Etxepare Institutua, jaialdiak (Zinemira-Zinemaldia), dantza konpainiak (Dantzaz), baita lagun bakarreko proiektuak ere (Silver Recordings).

Eragileen lehenengo karakterizazio honek agerian uzten du egonaldi-programen atzean den heterogeneotasuna, «egonaldiak: eredu azterketa» txostenean azpimarratzen den bezala. Programen aldakortasunari eta moldagarritasunari esker eta anfitrioiei eta egonaldian hartutakoei ekartzen dizkieten onurak direla eta, formula hau hedatutako eta etorkizun handiko tresna bilakatu da.

1. irudia. Egonaldi-programen erakunde anfitrioiak, tipologiaren arabera
Absolutuak. 2017



Titulartasuna aztertuz gero, eragile pribatuak (25) publikoak (18) baino gehiago direla nabari da. Aipatu bezala, espazio mota ohikoena sorkuntza espazio txiki edo ertain gisa sailkatutako guneak dira, guztiak pribatuak. Baina eragile publikoen artean dira garrantzi handienekoak: sorkuntza zentro handiak, udalak bezalako instituzioak, Etxepare Institutua, unibertsitatea, arte eszenikoetako aretoak.

2. irudia. Egonaldi-programen erakunde anfitrioiak, tipologiaren eta titulartasunaren arabera. Absolutuak. 2017

| | Pribatua | Publikoa | Guztira |
|--------------------------------------|-----------|-----------|-----------|
| Sorgunea | 15 | - | 15 |
| Arte eszenikoetako baliabide-zentroa | 3 | 3 | 6 |
| Arte eszenikoetako aretoa | 1 | 4 | 5 |
| Bestelako erakundea | - | 3 | 3 |
| Sorgune handia | - | 3 | 3 |
| Udala | - | 4 | 4 |
| Arte garaikide plataforma | 2 | 1 | 3 |
| Bestelakoa | 3 | - | 3 |
| Dantza konpainia | 1 | - | 1 |
| Guztira | 25 | 18 | 43 |

Erakundeen espezializazioari dagokionez, egonaldien antolakuntzan ohikoena eragile espezializatuak izatea da. Hori bai, diziplina anitzeko eragile kopurua ere kontuan hartzeko modukoa da.

3. Irudia. Egonaldi-programen erakunde anfitrioiak, espezializazioaren arabera Absolutuak. 2017


| | Kasu-kopurua |
|----------------------|--------------|
| Espezializatua | 24 |
| Arte eszenikoak | 16 |
| Ikusizko arteak | 4 |
| Zirkua | 2 |
| Ikus-entzunezkoak | 1 |
| Musika | 1 |
| Diziplina anitzekoak | 19 |
| Guztira | 43 |

Lurraldeak

Lurraldeari begiratzea ere baliagarria da egonaldien dinamika hobeto ulertzeko. Bizkaian kokatutako eragileak dira nagusi (22), ondoren Gipuzkoakoak (14), eta, azkenik, Arabakoak (7).

Arreta titulartasunean jarriz gero, Araban eta Bizkaian eragile pribatuak publikoak baino gehiago dira, alde handiz. Gipuzkoan, berriz, bien kopurua oso antzekoa da, gutxigatik bada ere eragile publiko gehiago izan arren.

4. Irudia. Egonaldi-programen erakunde anfitrioiak, lurraldearen eta titulartasunaren arabera. Absolutuak. 2017




Arabako eragileak hain gutxi izateak aniztasuna ere txikia izatea dakar: zazpi eragileetatik lau sorgune txiki eta ertainak dira. Bizkaian ere sorgune txiki eta ertainak dira nabarien; izan ere, 22 eragileetatik 9 sartzen dira sailkapen horretan. Aldiz, Gipuzkoan mota desberdinak modu homogeneoagoan banatzen dira, eta, 5. irudian ikusten den bezala, ez da bat bera ere nabarmentzen.

5. Irudia. Egonaldi-programen erakunde anfitrioiak, tipologiaren eta lurraldearen arabera. Absolutuak. 2017

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira |
|--------------------------------------|----------|-----------|-----------|-----------|
| Sorguneak | 4 | 9 | 2 | 15 |
| Arte eszenikoetako baliabide-zentroa | 1 | 2 | 3 | 6 |
| Arte eszenikoetako aretoa | - | 3 | 2 | 5 |
| Udala | 2 | 1 | 1 | 4 |
| Bestelako erakundea | - | 1 | 2 | 3 |
| Sorgune handia | - | 2 | 1 | 3 |
| Arte garaikideko plataforma | - | 3 | - | 3 |
| Bestelakoa | - | 1 | 2 | 3 |
| Dantza konpainia | - | - | 1 | 1 |
| Guztira | 7 | 22 | 14 | 43 |

Azkenik, lurralde bakoitzean sortzen diren programen jarduerara zuzendu behar dugu begirada. Nabari da (6. irudian) Araban kokatutako eragileak proportzionalki dinamikoagoak direla, egonaldi-programak sortzeari dagokionez, Bizkaian kokatutakoak baino. Gipuzkoaren kasuan, eragileen garrantzia bultzatzen dituzten programekiko proportzionala da.

6. Irudia. Egonaldi-programak eta erakunde anfitrioiak, lurraldearen arabera Ehunekoak. 2017



Atal honetan egonaldi-programen hainbat alderdi aztertzen dira:

- Tipologiaren arabera panoramika orokorra eskaintzen da, sailkapen egokia egitea ahalbidetzen duten irizpide esanguratsuak oinarritu hartuta: erakunde anfitrioiak, espezializazioa, helburuak, izaera eta iraupena.
- Jarraian, azterketa programen xehetasunetan murgiltzen da, ezaugarrietatik eta baldintzetatik abiatuta deskribatu ahal izateko: eskaintzen diren baliabideak, ordaintzen diren gastuak eta ordainsaririk ba ote den ala ez.
- Eragile/programen arteko lankidetzarekin, hautaketarako baldintzekin (bai hautaketa irizpideak bai hautatuaren betebeharrak) eta hautaketa prozesuarekin ixten da kapitulua.

4.1. Egonaldi-motak

Atal honetan, EAEn egiten diren egonaldi-programen ezaugarrietara zuzentzen da begirada. Identifikatutako 123 egonaldiak aztertzen dira oinarritzko interes irizpideen arabera, ustez heterogeneoa izango den agertoki bat egituratzen laguntzeko bost ikuspegitik:

1. Erakunde anfitrioiak
2. Espezializazioa
3. Helburua
4. Izaera
5. Iraupena

Aintzat hartu behar da azterketak ikuspegi desberdinak barne hartzen baditu ere, errealitatean badirela ikuspegi bat baino gehiago uztartzen dituzten programak ere. Hori da, agian, egonaldien ezaugarri nagusietako bat; aldakortasuna eta eredu bereziak proposatzeko gaitasuna.


Erakunde anfitrioiaren arabera

Erakundeen eta egonaldien arteko harremana ikertzean egin beharreko lehen oharra da programa ugari antolatzen dituzten eragileak direla gehiengoa; hamar instituzio anfitrioiatik seik urtean deialdi bat baino gehiago egiten dute. Badira oso eragile aktiboak, beste erakunde batzuek programa bakarra aurkezten duten denbora berean 10 egonaldi-programa ere antolatzen dituztenak.

Egonaldiak erakunde anfitrioiaren arabera sailkatuz gero, ikus daitezke gehienak (% 39) sorgune txiki eta ertainetatik datozela. Kontuan izan behar da profil horretako espazioak gehiengoa direla, era berean, erakunde eta instituzio sustatzaileen artean. Proportzionalki, pisu handiagoa dute programei dagokionez eragileei dagokionez baino, beraz, kasu askotan programa bat baino gehiago antolatzen dituzte.

Atzetik, alde handiarekin, egonaldi-programa kopuruan bigarren eragileak sorgune handiak dira. Kasu horretan, aintzat hartu behar da hiru eragile besterik ez direla sartzen sorgune handien kategorian. Hirurek bultzatzen dituzte egonaldi-programa bat baino gehiago.

7. Irudia. Egonaldi-programak eta erakunde anfitrioiak, eragile tipologiaren arabera. Ehunekoak. 2017



Eragileen tipologiari buruzko ikuspegia oinarri, honakoa nabarmendu beharra dago:


- Sorkuntza zentro handiak eragileen % 7 dira baina egonaldi-programen % 18 antolatzen dituzte. Hiru sorkuntza zentro handien artean 20 programa eskaintzen dituzte: eragileko ia 7 batez beste.
- Espazio txiki eta ertainek ere eredu bera jarraitzen dute. Izan ere, mota horretako 15 eragileek 48 programa eskaintzen dituzte: batez beste 3,2 eragileko.
- Azkenik, joera hori (eragile motaren arabera baino pisu handiagoa programa kopuruaren arabera) udaletan ere ikusten da. Kasu horretan, begirada zorrotzago batek erakusten du Gasteizko Udalaren kasua dela nabarmenena.

Espezializazioaren arabera

Ikuspegi orokorrerako garrantzitsua den tipologia da programen espezializazioarekin edo transbertsalitatearekin zerikusia duena. Espezializazioaren barruan, era berean, egonaldi-programak zein eremu artistikotan garatzen diren zehazten da.

Hasiera batean, egonaldi artistikoak funtsean ikusizko arteen inguruan garatzen hasi ziren eta, ondoren, arte eszenikoak edo musika bezalako bestelako eremuetara zabaltzen hasi ziren. Espezializazio hori eman arren, lankidetzaz joera bat sortzen hasi da beste eremu artistikoekin, baita arteetatik kanpoko sektoreekin ere, artistek hala nahi izan dutelako.


8. Irudia. Egonaldi-programak, espezializazio eremuaren arabera. Ehunekoak. 2017



Grafikoari begiratzean argi ikusten da honako hau:

- Edozein sorkuntza mota onartzen duten zeharkako egonaldiak presentzia handia dute EAEn, egonaldi espezializatuen eta zeharkakoen oreka izateraino.
- Egonaldi espezializatuen artean, batez ere arte eszenikoetakoak nabarmentzen dira, eta, ondoren, ikusizko arteetakoak. Musikan eta ikus-entzunezkoetan espezializatutako programen pisua txikia da, are txikiagoa literatura programena, bakarra baitago.
- Grafikoan antzerkia, dantza eta zirkua arte eszenikoen barruan sartzen baditugu ere, kontuan izan behar da antzerkiak ikusizko arteek baino pisu handiagoa duela (% 23 bata eta % 11 besteek).

9. Irudia. Arte eszenikoetan espezializatutako programak. Ehunekoak. 2017



Eremu bakoitzean eragileak izateak programen espezializazioa baldintzatzen du. Eragile gutxiago edo ahulagoak dituzten eremuetan, egonaldi-programa gutxiago dira.

Ikusizko arteen kasuan, egonaldi-programen atzean BilbaoArte, Tabakalera eta Azkuna zentroa bezalako sorkuntza zentro handiak eta Bulegoa z/b edo Eremuak bezalako plataformak daude.

Arte eszenikoen kasuan, askotariko eragileak ditugu maila guztietan, arte eszenikoetako baliabide-zentroetatik hasi, sorkuntza espazio txiki eta ertain espezializatuetatik pasatu, eta arte eszenikoetarako aretoetaraino edo konpainia bateraino. Nabarmendu beharra dago udalek eredu honen aldeko apustua egiten dutela.

Azkenik, aipatzekoa da Gipuzkoa ikus-entzunezkoak edo dantza bezalako arloetan «espezializatu» dela. Zinemaldia, Tabakalera edo Dantzagunea bezalako eragileak, hiru eredu jartzearen, lurraldean kokatuta izateak markatzen du espezializazio erlatibo hori. Bizkaiaren kasuan, ikusizko arteak eta antzerkia nabarmentzen dira. Araban, antzerkia.

Helburuaren arabera


Egonaldi-programek, normalean, elkarren artean uztartu daitezkeen lau helburu izan ohi dituzte:

- Ikerkuntza: Egonaldia ez da amaitzen egindako produktu artistiko batekin. Helburua informazioa bilatzea, prestakuntza jasotzea, esperimentatzea eta ideia bat, objektu bat edo lan-eremu bat definitzea da, ikuspegi alternatiboetatik abiatuta.
- Ekoizpena: Ikerkuntzan ez bezala, kasu honetan, helburua ideia bat hezurmamitzea da. Ohikoa da ekoizpen-egonaldiek bitartekaritza lana egitea eta publikoa sortzea ere helburu izatea.
- Gai batean sakontzea: Gaikako egonaldien ezaugarria da objektu artistikoa, lan-eremua, aurretik anfitrioiak definitzen duela eta artistak horren inguruan lan egiten duela.
- Nazioartekotzea: Nazioartekotzeko egonaldiek bai artistarentzako bai anfitrioiarentzako kontaktu sareak garatzea eta ezartzea bultzatzen dute.

EAEEn, egonaldi-programak gehienbat ekoizpenera bideratzen dira; bigarren tokia ikerkuntzara bideratutako egonaldiak hartzen dute. Nabarmentzekoa da EAEko egonaldien arteko bitartekaritzaren garrantzia, EAEEn asko ematen dena, arte eszenikoekin lotutako formuletan bereziki.

Nazioartekotzea ez da helburu nagusia (hamar programetatik bik baino ez dute bilatzen hori), ezta gai zehatz baten inguruan egonaldiak garatzea ere.

10. Irudia. Egonaldi-programak, helburuaren arabera. Ehunekoak. 2017



* Aukera bat baino gehiago hauta zitezkeelako da ehuneko batura 100 baino handiagoa


Gaikako egonaldiak batez ere zeharkakoak dira, eta, nazioartekotzeari dagokionez, ez dago nabarmentzen den jomugarik.

Trukaketa dela eta, ohikoa izan ez arren, sorgune handiek eta nazioarteko bokazioa duten espazio txikiagoek erabiltzen duten formuletakoa bat da.

Iraunkortasunaren arabera

Egonaldiak sailkatzeko beste irizpide bat izaera egonkorra ala iragankorra izatea da. Egonaldi egonkorrak sortzaileek (pertsonek edo konpainiak) epe luzera lan egin ahal izateko espazio eta baliabideak eskaintzen dituztenak dira. Espazioen erabilera lagatzeko hitzarmenak ere har ditzakete barnean. Bestalde, egonaldi iragankorrak proiektu puntualak garatzeko sortzen dira. Lan-dinamika horrek berezkoa du zentrorra edo erakundera doazen sortzaileak txandakatzea eta berritzea.

11. Irudia. Egonaldi-programak, izaeraren arabera. Absolutuak. 2017




Kasu bakoitzerako, gainera, honako hau azpimarra daiteke:

- 32 egonaldi-programa egonkorren artean antzerkian espezializatutakoak nabarmentzen dira. Talde horretan kokatzen dira konpainia egoiliarak hartzen dituztenak. Iraupena aldatu egiten da, baina ia egonaldi erdiek urte betetik gorako iraupena dute.
- Egonaldi iragankorrei dagokionez, identifikatutako 80 kasuetatik 41ek zeharkako edukia dute. Gainerakoak, berriz, dantzaren, antzerkiaren, musikaren, zirkuaren, ikusizko arteen eta ikus-entzunezko proiektuen artean banatzen dira. Iraupenik luzeena sei hilabetekoa da.

Iraupenaren arabera

Iraupenaren ikuspuntutik egonaldi-programen ikuspegi orokorra eskaintzeko, kategorizazio espezifikoa egin da:


12. Irudia. Egonaldi-programak, iraupenaren arabera. Ehunekoak. 2017



Orokorrean, egonaldi gehienek aurrez zehaztutako iraupena dute. Laurden batek denbora-tarte malguak dituzte. Hau da, egonaldia denbora-tarte baten barruan garatzen da, gutxieneko eta gehienezko muga batekin. Egonaldi gutxi batzuk besterik ez dira egokitzen garatu beharreko proiektuaren beharretara.

Iraupena aurrez zehaztuta duten egonaldien artean askotariko kasuak dira; hala, egun bat zein bi urte irauten duten programak izan daitezke. Grafiko honetan programa guztiak jasotzen dituen eskala bat osatu da.

13. Irudia. Egonaldi-programak, iraupenaren arabera. Absolutuak. 2017




Aurrez zehaztutako iraupena duten egonaldien kategorian, hiru joera identifikatzen dira:

- Egonaldi motzak, gehienez ere bi aste irauten dutenak.
- Iraupen ertaineko egonaldiak, batez ere hilabete eta bi hilabete bitartekoak, baina baita hiru eta lau hilabetetakoak ere.
- Iraupen luzeko egonaldiak, sei hilabetez gorakoak.

Aurrez zehaztutako iraupena duten kasuei eta muga malguagoak dituztenei elkarrekin erreparatuz gero, aukera nagusiak bat, bi edo hiru hilabeteko egonaldiak direla ikusten da.

14. Irudia. Egonaldi-programak, iraupenaren arabera. Absolutuak. 2017



4.2. Egonaldien ezaugarriak

Egonaldiena berezitasun asko dituen askotariko fenomeno bada ere, lerro komun batzuk marraz daitezke oinarrizko elementu batzuetatik abiatuz, besteak beste, egonaldia garatzeko eskaintzen diren baliabide nagusiak, ordainduko diren gastuak eta artistarentzat ordainsaririk ba ote den ala ez.


Eskaintako baliabideak

Ikusmolde orokor batetik begiraturuta, egonaldi bat artista eta profesionaleri haientzat ohikoa ez den ingurune batean lan egiteko luzatutako gonbidapena da. Horretarako, erakunde anfitrioiak denbora, espazioa eta baliabideak eskaintzen ditu, haien jarduera artistikoari lotutako eremuetan proiektuak gara ditzaten.

Datuak berresten dute egonaldien ezaugarri nagusia lanerako espazio bat eta baliabide teknikoak lagatzea dela. Gainera, interesgarria da aipatzea egonaldi-programek, normalean, laguntza artistikoa eta komunikazio-baliabideak eskaintzen dituztela artistaren eta garatutako proiektuaren sustapenerako.

17. irudian errealitate hori kuantifikatu egiten da, baina aintzat hartu behar da datu-basean gordetako hainbat kasutan Interneteko informazio publikoa baino ez dela. Alegia, agertzen diren zifrekin alderatuta, baliteke eragile gehiagok eskaintzea baliabide horietakoren batzuk (litekeena seguruena). Dena dela, programen joeren eta esanahiaren adierazle dira datuok.

15. Irudia. EAEko egonaldi-programetan eskainitako baliabideak. Ehunekoak. 2017




Zehazki, hamarretik zortzik lanerako lekua lagatzen dute, hamarretik zazpik baliabide teknikoak eskaintzen dituzte eta erdiek inguru aholkularitza artistikoarekin eta komunikazioarekin lotutako laguntza.

Azpimarratu behar da, aipatutako baliabideez gain, erakunde anfitrioiak proiektuaren behar hertsietatik harago doazen tutoretzak eta aholkularitza ere eskaintzen dituztela; formakuntza espezializatua, zentro anfitrioiaren zerbitzuetara sarbidea, agiritegi edo liburutegi espezializatuak kasu; zentroarekin edo espazioarekin erlacionatutako komunitate artistikoarekin harremana eta lotura. Laburbilduz, programa bakoitzaren eskaintza zehatzaz gain, bestelako elementu ukiezinak ere gehitzen dira, erakunde anfitrioiaren jakintzarekin eta testuinguruarekin lotuta daudenak eta egonaldien interesari eta erakargarritasunari ekarpena egiten dietenak.

Ordainsariak eta ordaindutako gastuak

«Egonaldiak: eredu azterketa» txostenean aipatzen zen bezala, sortzaile gonbidatuei laguntzak emateko formula ugari dira: laguntzak eskaintzen ez dituzten programetatik hasi eta laguntza partzialak eskaintzen dituztenetaraino (egonaldia, bidaia, proiektua). Hainbat kasutan, dena batera eskaintze dute egonaldiek.

16. Irudia. EAEko egonaldi-programetan ordaindutako gastuak. Ehunekoak. 2017



Aztertutako hamar programetarik hiruk artistei ordainsariak ematea aurreikusten dute (% 30,9, guztira 38 programa). Bi asteko egonaldi baten truke 300 euro jasotzetik sei hilabete baino gehiagoko egonaldi batean 5.500 euro jasotzeraino joan daiteke ordainsariaren zenbatekoa.

Ordaindutako gastuei dagokionez, ia programen erdiek ostatura ordaintzen dute (% 46,34, horien erdiak baino gehiagok partekatutako alojamendu gisa); hamarretik hiru programa inguruk bidaien, dieten eta ekoizpen materialen gastuak ordaintzen dituzte, eta, azkenik, gutxitan izaten dute barne mediku-asegurua (% 13,9).

4.3. Laguntzaileak, sareak eta trukeak

Egonaldiak artistentzat zein erakunde anfitrioiarentzat ondorio positiboak eragiten dituzten baliabideak dira:

- Erakunde anfitrioiak kontaktuak egiten dituzte beste erakunde batzuekin, etorkizunean lankidetzak proiektuak garatu eta aukera berriak miatu ahal izateko.
- Artistek, haien sare propioa jostez gain, testuinguru desberdinetako begirada berriekin jartzen dira harremanetan eta jakintza aberasten dute.

Programotan maila eta parte-hartze marko desberdinetako eragile laguntzaile ugari bat egiten dute. Hala, esaterako, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek edo hiriburu-udalek bezalako instituzio publikoek programak finantzatzeko dirua eskaini ohi dute. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak aztertutako programen ia % 30ean hartzen du parte, sorgune programaren eta antzokietako egonaldiei emandako diru-laguntzen bidez. Horiei Etxepare Institutuak zuzenean kudeatutako

programak edo partaidetza duenak gehitu behar zaizkie. Aldundiei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan Tabakalera eta Dantzagunearekin zerikusia duten programekin lotura zuzena duela zehaztu behar da; Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, aztertutako sorguneei emandako diru-laguntzen bidez hartzen du parte finantzazioan.

Bilboko Udala da beste eragile publiko garrantzitsu bat, bai Azkuna Zentroa eta BilbaoArte bezalako sorkuntza zentro handien bidez, bai BilbaoEszena bezalako espazioekin, bai programa txikiagoak finantzatuz. Bestalde, Gasteizko Udalak arte eszenikoekin lotutako egonaldi ugari sustatzen ditu zuzenean. Donostiako Udalak ere hiru programa bultzatzen ditu, Gasteszena eta Lugaritz kultur zentroekin lotutako bi, eta, hirugarrena, sorkuntza literaria zuzendutako nazioarteko programa bat (Other words). Azkenik, arte eszenikoetako baliabide-zentroak edo konpainia egonkorak hartzen dituzten aretoak dituzten herrietako udalak ere zuzenean inplikaturik daude, besteak beste, Zigoitia, Andoain, Urnieta, Errenteria, Azpeitia, Amorebieta-Etxano edo Durangokoa.

Eragileek edota haien egonaldi-programek osatutako sare nagusiak Karraskan, Wikitoki eta Sarean dira. Gutxiago bada ere, Bilboko Espazioak Trukatze Sarea (ETS) eta Europako Res Artis ere agertzen dira. Nahiz eta sare eta programa laguntzaile europarrak badiren, hala nola Small Size proiektua, 2016an DSS2016-k finantzatutako Europako kultur hiriburuen proiektua edo Creative Europe programaren parte den eta aipatu berri dugun Other Words proiektua, ez da presentzia adierazgarririk sumatzen.

Azala, Bulegoa z/b, BilbaoEszena, La Fundación, Sarean eta Histeria Kolektiboa bezalako eragileen arteko lankidetzak badirela ikusi da. Gainera, Tabakalera, Dantzagunea edo Etxepare Institutua bezalako hedadura handiko espazioak laguntzaile gisa agertzen dira haienak ez diren zenbait programatan.

Egonaldi-programen % 21,9 trukeetan oinarritzen dira. Formatu honek presentzia badu, baina urria.

Ematen diren loturen eta kontaktuen adierazle gisa, batera dauden partaide kopurua aztertu da. Kasurik gehienetan partaideek ez dira batera egoten zentro batean. Hala gertatzen denean, inkestatutako eragileek adierazi dutenez, bi lagun edo, beste muturrean, hamar lagun baino gehiago izaten dira batera.

Azken kasu hori espazio handi bat (fisikoki) eta egonaldi eskaintza zabal bat duten eragileei esker ematen da. Esaterako, Garaion Sorgingunearen egonaldietan jatorri desberdinetako 20 lagun baino gehiago izan ohi dira batera, egonaldiko partaideak eta espazioko eragileak kontuan hartuta.

4.4. Egonaldietan parte hartzeko baldintzak


Baldintza gisa hartu ditzakegu bai sartzeko baldintzak (hautaketa edo sarbide baldintzak), bai amaierako baldintzak (hautatuaren betebeharrak).

Bi ataletan nolabaiteko aldakortasuna ikusten da, kasu askotan berezitasun propioak zehazteko «Besteak» aukera hautatzea erabakitzen baita.

Hautaketa irizpideak gardenak izan behar dira aurkezten diren partaideentzat eta eraginkorrak izan behar dira haien esperientzia maila eta ibilbidea balioztatzeko. Sartzeko aukeraren eta bikaintasunaren arteko oreka bilatu behar izango litzateke. Hautaketa irizpideen kasuan azpimarratu beharreko elementuak honako hauek dira:


- Ez dago modu orokorrean ezartzen den irizpiderik, nahiz eta originaltasuna eta berrikuntza eta ibilbide artistikoa nabarmentzen diren.
- Bitartekaritza jarduerak barne hartzen dituzten proposamenei lehentasuna emateko irizpidea ere aurrekoak bezain garrantzitsu ageri da.
- Gaztea edota emakumea izatea lehentasunezko irizpide bezala agertzen dira zenbait kasutan, biztanleriako talde horiei aukera gehiago eman ahal izateko.
- «Besteak» kategorian, kasu gutxi batzuetan errepikatzen dira lehentasunezko irizpide gisa garapen bidean diren artista edo proposamenak izatea, eta euskaraz eginak izatea.

17. Irudia. EAEko egonaldi-programetako hautaketa irizpideak. Ehunekoak. 2017



Hautatuen betebeharrari dagokienez, egonaldi-programen baldintza ohikoenetako bat egindako lana publikoki erakustea dela nabarmentzen da. Bigarrenik, gehien zabalduetako betebeharrak bat egonaldi-programaren bidez ekoizpena aurrera ateratzea posible egin duten eragile antolatzaileak aipatzea da.

18. Irudia. EAEko egonaldi-programetan parte hartzearekin lotutako betebeharrak. Ehunekoak. 2017




«Besteak» kategorian, inkestatutako eragileek lana publikoki erakustea aipatzen dute batez ere, baita bitartekaritza lanekin eta publikoa sortzearekin lotutako betebeharrak ere. Kontuan izanik hautaketa irizpideen atalean garela, betebeharrak hemen idatziz jaso izanak irizpideon garrantzia indartu egiten du. Heziketa eta publiko berriekiko bitartekaritza azpimarratzea bereziki esanguratsua da antzokietan edo arte eszenikoetako baliabide-zentroetan lan egiten duten arte eszeniko konpainien kasuan.

4.5. Egonaldiak hautatzeko prozesua

Azken atal honetan partaideen hautaketa prozesuaren ezaugarriak aztertzen dira.

Aldizkakotasunari dagokionez, ohikoena da programen deialdiak urtean behin egitea (hamar kasutatik sei). Aipatzekoa da, era berean, programen laurden bat etengabeko deialdiak direla, jaso daitezkeen eskaerei zabalik daudela, alegia. Sorgune txiki eta ertainetako programa batzuk aukeratzen dute modalitate hau.


19. Irudia. Egonaldi-programak, aldizkakotasunaren arabera. Ehunekoak. 2017



Erakunde anfitrioi-tako arduradunekin izandako elkarrizketetatik egonaldi-programek aldaketak izan ditzaketela atera liteke, urteroko aldizkakotasuna mantenduta ere. Sortzaileen esperientziak, kudeaketa hobekuntzak edo helburuen aldaketek edizio batetik bestera baldintzak aldatu ahal izatea ekartzen dute. Hala, esaterako, eta joera orokortu dela esan nahi ez badu ere, ibilbide luzeena duten erakundeek egonaldi luzeagoak proposatzen dituzte (bi urte artekoak), eremu desberdinak gurutzatuz (ikusizko arteak eta dantza...) edo zuzenean zeharkako proiektuei zuzendutakoak. Era berean, programa desberdinak deialdi bakar batean batzen saiatzen dira, erakunde-kide ez diren adituek osatutako batzordea antolatzeak dakartzan arrazoi logistikoak direla eta.


Deialdien irismenari dagokionez, nabarmentzekoa da ohikoenak bi deialdi mota direla: Euskadiko sortzaileei zuzendutakoak (% 39) eta nazioarteko irismena dutenak (% 34). Atzetik, tokian tokikoak dira, pisu handiarekin (% 32); egonaldi askoren helburua tokiko sorkuntzan eragina izatea da. Estatu mailako deialdiak azkenak geratzen dira (% 17).

20. Irudia. Egonaldi-programak, irismenaren arabera. Ehunekoak. 2017



Prozesuaren azterketari bagagozkio, beharrezkoa da gogoratzea kasu asko egonaldi-programen edo deialdien informazio publikoaren bidez identifikatu direla. Kasu horietan, normalean ez da hautaketa prozesuari buruzko xehetasunik. Horregatik, baliteke erantzunak partzialak izatea, kontratu bat, gonbidapen bidezko egonaldi bat edo deialdi publiko bat den galdetzen den puntuan izan ezik.

21. Irudia. Deialdien ezaugarrien laburpena, hautaketa prozesuaren ikuspegitik
Ehunekoak. 2017



Dena dela, azpimarra genezake egonaldiak gehienbat deialdi publikoen bidez kudeatzen direla, prozesu irekietan eta epaimahai batekin. Hala ere, gonbidapen bidezko egonaldiek ere garrantzi handia dute.

Baldintzen eta akordioen formalizazioari dagokionez, hamarretik bi kasutan bestetan ez dute adierazte hitzarmenak ezartzen dituztela, konpainiekin egindako egonaldien kasuan izan ohi den bezala; eta kontratuak, proiektu puntualak eta artistei zuzendutakoak direnean.

EAEko egonaldi artistikoak antolatzen dituzten eragileen ezaugarriek markatzen dituzte egonaldi horien nondik-norakoak:

- Programak gehienbat eragile pribatuek eskaintzen dituzte (25 eragile pribatu eta 18 eragile publiko).
- Geografikoki, Bizkaian kokatutako eragileak dira nagusi (22), ondoren Gipuzkoakoak (14) datoz, eta, azkenik, Arabakoak (7). Araban eta Bizkaian eragile pribatuak gehiengoa dira alde handiz. Gipuzkoan, berriz, balantzak, gutxigatik bada ere, publikoen aldera egiten du.
- Bizkaiarekin alderatuta Araban eragile kopuru txikiagoa badago ere, proportzionalki dinamikoagoak dira, egonaldi-programak sortzeari dagokionez. Gipuzkoaren kasuan, eragileen garrantzia bultzatzen dituzten programekiko proportzionala da.
- Diziplina anitzeko eragile kopurua (18) eragile espezializatuena baino txikixeagoa da (25).

Irizpide desberdinetatik abiatuta eraikitako tipologiaren ikuspegitik begiratuta (erakunde anfitrioiaren, espezializazioaren, helburuen, izaeraren eta iraupenaren arabera) zenbait iruzkin esanguratsu ateratzen dira:

- Sorguneak (handiak edo txiki eta ertainak) dira eragile nagusiak. Sorgune handiak eragileen % 7 dira baina egonaldi-programen %16 sortzen dituzte. Espazio txiki eta ertainek ere eredu bera jarraitzen dute. Izan ere, mota horretako 15 eragileek programen % 39 sortzen dituzte.
- Zeharkako programak espezializatuak adina dira ia. Espezializatuaren artean, arte eszenikoak (antzerkia bereziki) eta ikusizko arteak nabarmentzen dira. Musikan eta ikus-entzunezkoetan espezializatutako programen pisua txikia da, oraindik eta txikiagoa literatura programena, bakarra baita.
- Egonaldien helburu nagusiak lehendabizi ekoizpena eta bigarrenaz ikerketa dira. Ekoizpena eta bitartekaritza estu-estu lotuak izan ohi dira. Nazioartekotzeak % 20ko pisua besterik ez du. Gaikako egonaldiak ere ez dira oso hedatuak.
- Egonaldien iraupenik ohikoena hilabete bat eta hiru bitartekoa da, baina bi astetik beherako egonaldi motzak eta sei hilabetetik gorako egonaldi luzeak ere ugari dira. Izaera iragankorra izaera egonkorren gailentzen zaio.
- Egonaldi egonkorretan, pisu handia dute arte eszenikoetan espezializatutakoek. Iragankorretan, zeharkakoak dira gehienak.

Azkenik, interesgarria da programak definitzen dituzten ezaugarri nagusiak erretratu grafiko eta sintetiko batean ikustea:

| | | |
|------------------------|--|---------|
| Eskaintako baliabideak | Tailerra | % 75,61 |
| | Baliabide teknikoak | % 69,10 |
| | Komunikazio-baliabideak | % 55,28 |
| | Laguntza artistikoa | % 54,47 |
| Ordainsariak | Egoinaldi-programen % 30,9k ordainsariak eskaintzen dizkiete artistei. | |
| Ordaindutako gastuak | Ostatua | % 46,34 |
| | - Pribatua | % 15,44 |
| | - Partekatua | % 24,39 |
| | - Ezezaguna | % 6,50 |
| | Bidaia | % 29,26 |
| | Dietak | % 30,84 |
| | Ekoizpen-materialak | % 26,82 |
| Mediku-asegurua | % 13,82 | |

Gainerako alderdiei dagokionez, honakoa jartzen da agerian:

- Eragileak eta lankidetzak: Sareei dagokionez, elkarlanean aritzen diren eragile eta programa nukleo txiki badela ikusi dugu. Hala ere, ez da modu bateratuan parte hartzen zenbait saretan, izan eskala txikikoak ala handikoak.
- Hautaketa-baldintzak: Bitartekaritza jarduerak barne hartzen dituzten proposamenei lehenetsua emateko irizpidea ohikoenak eta nagusienak (originaltasuna, berrikuntza, curriculum eta ibilbide artistikoa) bezain garrantzitsu ageri da. Gainera, «Besteak» kategoriaren garrantzia handia dela ikusten da eta horrek aldakortasun handia dela adierazten digu, eragile bakoitzak testuinguru zehatz batean kokatzen diren baldintza espezifikoak ezartzen ditu eta.

Betebeharrei dagokionez, aipatzekoa da egindako lana publikoki erakusteko duen garrantzia.

- Hautaketa-prozesua: Arlo honetan jasotako erantzun maila txikiak adieraz dezake hautaketaren formalizazioa ez dela publikoki egiten. Dena dela, prozedura irekiak eta kanpoko epaimahai baten bidezkoak nabarmentzen dira. Urteroko deialdiak dira nagusi (erdia baino gehiago) eta laurden bat etengabeko deialdi dira.

Atal bakoitzeko emaitza nagusietatik abiatuz, zera esan dezakegu:

EAEko egoinaldi bat edozein eremutan ikertzeko edo ideia artistiko bat ekoizteko gonbidapena da. Urtero sortzen diren aukerak dira eta prozedura ireki baten bidez har daiteke parte. Ideia artistikoaren garapenerako, funtsean, lanerako leku bat eskaintzen da, egindako egoinaldia aipatuz erakusketa publiko bat egitearen truke. Curriculum eta ibilbidea originaltasuna eta proiektuaren berrikuntza bezain garrantzitsuak dira.

Azken ohar gisa, egonaldien arrakastaren hainbat ezaugarri aipatuko ditugu:

- Sortzaileei zein erakunde anfitrioiari onurak ekartzen dizkiete. Denek zerbait irabazteko planteamendu honek egonaldiak finkatzen laguntzen du. Izan ere, uste baino Mapa zabalagoarekin egin dugu topo, bai eragile kopuruan eta baita programa kopuruan ere.
- Programa moldagarriak eta erabilera anitzekoak dira eta horregatik ari dira mota guztietako erakundeetara hedatzen. Askotariko erakundeen behar eta helburuen arabera moldatu ahal izateak sorkuntzan jarduten duten erakunde, espazio eta zentroen errealitatean presentzia handia izatea dakar.
- Paisaia aldakor bat marrazten dute, inizatiba berriak sortzen direlako edo existitzen diren programak aldatzen joaten direlako. Horren ondorioz, Mapa bat marraztea etengabe osatzen joan beharreko lana da. Hori aintzat hartu beharreko alderdi bat da hedapen publikorako irtenbide bat pentsatzeko orduan.
- Trukeak edo artistak atzerrira bidaltzeko formulak zabaltzeko aukerak badira; artisten eta ikastetxeen arteko formula aztertu, Bartzelonako EN RESIDÈNCIA programa bezalakoak; gaikako egonaldiak eta gutxi esploratutako eremuetan espezializatutako egonaldiak indartu, kultura eremuetan eta sorkuntzarekin bat egiten duten gaietan.

ERANSKINAK

1. Erakundeen eta egonaldi-programen zerrenda EAE 2016-2017

| | Erakundeak | Egonaldi programa kopurua |
|----|---|---------------------------|
| 1 | Arropaineko Arragua | 3 |
| 2 | ARTgia aretoa | 1 |
| 3 | Bilboko Udala | 1 |
| 4 | Azala, kreaio espazioa | 1 |
| 5 | Azkuna zentroa | 3 |
| 6 | Baratza Aretoa | 1 |
| 7 | Bastero Kulturgunea Auditorioa | 2 |
| 8 | Bilbaoeszena (Centro de Recursos Teatrales) | 1 |
| 9 | Bitamine Faktoria | 5 |
| 10 | Bulegoa z/b | 2 |
| 11 | Consonni | 1 |
| 12 | DANTZAZ | 2 |
| 13 | Eremuak | 2 |
| 14 | Etxepare Institutua | 2 |
| 15 | Fundación Bilbao Arte Fundazioa | 7 |
| 16 | Garaion Sorgingunea | 9 |
| 17 | Gipuzkoako Dantzagunea | 3 |
| 18 | Harrobia, Centro de Innovación en producción escénica | 1 |
| 19 | Histeria Kolektiboa | 3 |
| 20 | Kabia Espazioa | 3 |
| 21 | Kunarte - Berrikuntza Artistiko eta Lehen Haurtzarorako Zentroa | 8 |

.../...

.../...

| | Erakundeak | Egonaldi programa kopurua |
|----|--|---------------------------|
| 22 | La Fundación | 1 |
| 23 | Sarobe Arte Eszeniko Gunea - Urnietako udala | 1 |
| 24 | ZAWP (Zorrotzurre Art Work in Progress) | 4 |
| 25 | Zirkozurre | 4 |
| 26 | Zornotza Aretoa (Amorebieta-Etxano) | 1 |
| 27 | Elkartoki | 1 |
| 28 | Errenteriako Udala | 1 |
| 29 | Biharran Eraikin Industrial Biziberritu | 2 |
| 30 | Centro de Arte la Pajarera - Baraka Creaciones | 1 |
| 31 | Donostiako zinemaldia | 4 |
| 32 | San Agustin Kulturgunea-Durango | 2 |
| 33 | Sarean | 4 |
| 34 | Silver Recordings | 2 |
| 35 | Soreasu Antzokia, Azpeitia | 1 |
| 36 | Tabakalera - Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa | 10 |
| 37 | Undermount - Asociación cultural y casa del artista | 1 |
| 38 | UPV - EHU | 1 |
| 39 | Utopian | 2 |
| 40 | WikiToki Elkarsorkuntzarako laborategia | 6 |
| 41 | Zigoitiko Udala | 1 |
| 42 | Donostia Kultura | 3 |
| 43 | Vitoria-Gasteizko Udala | 9 |

2. Egonaldien fitxa

| | |
|--|--|
| Espazioaren/Eragilearen izena | |
| Egonaldiaren izena | |
| Eragile lankideak (finantziarioa, baliabideak...) | |
| Zer saretako kidea | |
| Harremanetarako datuak | Tel. _____ e-posta _____ |
| Helbide postala | PK _____ Kalea _____ Herria _____ Lurraldea _____ |
| Web-helbidea | Deialdia: _____ Espazioa/eragilea: _____ |

| | |
|--|--|
| Deskribapen laburra (150 hitz gehienez) | |
| Egonaldiaren tokia | |
| Hartzaileak | Pertsonak Taldeak Besterik: _____ |
| Zenbat lagun egon litezke aldi berean | _____ |
| Irismen geografikoa | Tokikoa Euskadi Estatu Nazioartekoa |
| Arlo artistikoa | Zeharkakoa Espezializatua (Zabalgarria) |
| Egonaldiaren helburua | Ikerketa Tematikoa Ekoizketa Nazioartekotzea |
| Trukea | Bai Ez |
| Egonaldiaren aurrekontua | |
| Deialdiaren aldikotasuna | Jarraitua urterokoa Bi urtean behingoa Bestela: |
| Deialdi-mota | Lehiaketa publikoa Gonbidapena Hitzarmena |
| Egonaldiaren izaera | Iraunkorra (Espazioa zein baliabideak) Iragankorra (Proiektua) |

.../...

.../...

| | |
|--|---|
| Egonaldiaren iraupena | _____ |
| Zerbitzu-saria | Bai Zenbatekoa: _____ Ez |
| Estalitako gastuak | Bizitokia |
| | Bidaia |
| | Dietak |
| | Osasun-asegurua |
| | Bestelakorik: _____ |
| | Bestelakorik: _____ |
| Bizitoki-mota | Partekatua Pribatua Bestelakoa: _____ |
| Lantegia | Bai Ez |
| Laguntza artistikoa | Bai Ez |
| Baliabide tekniko edo artistikorik edo giza baliabiderik | Bai Ez |
| Komunikazio-baliabiderik | Bai Ez |
| Eskaintzen diren baliabideen gaineko oharrak | |
| Hautatzean lehenesteko irizpideak | Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna Ibilbide artistiko adierazgarria CV nabarmena Gizarte-artekaritza eta gizarte-itzulkinak Gazteei zuzendua Emakumeei zuzendua Bestelakoak: _____ |
| Hautatutakoaren betebeharrak | Lana publikoki erakustea Memoria bat idaztea Eskubideak lagatzea Lana hedatzen denean tartean izan diren eragileak aipatzea Espazio nahiz erakundearen jardueretan parte hartzea Bestelakorik: _____ |
| Hautaketa-prozesua | Irekia Itxia Balorazio batzordea Batzorde iraunkorra Antolatzailearen barne-epaimahaia Kanpo-epaimahaia Zenbatean behin berritzen da batzordea: _____ |
| Oharrak edo argibideak | |



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



www.euskadi.eus/kulturabehatokia